



"Itsasertzeko bidea: Jaizkibel mendiko Itsaslabarretako Ibilbidea"

Zeharkaldi osoa, Pasai Donibanetik Higerreko lurmuturreraino (Hondarribia)

Topo gida

ADI mendizaleok!!!

Vasco de Camping Elkarrekin ez ditu bere gain hartzen hemen agertzen diren ibilbidea eta txangoen norabideen aldaketak zein gerta daitezkeenak.

Mendian aritzea arriskutsua izan daiteke.

Zure sasoi puntuak edota zure ezagutza teknikoak egin behar dituzun txangoei muga jartzen dizkie.

Jaizkibel mendiaren itsasertza, Kantauri itsaslabarretako eszenatoki paregabe eta berezitat jotzen da. Gainera, kostaldean ezagutzailerak jakitunean artean Europar kontinentean itsasertzen altxorraztat hartuta dago ere. Naturaren maisu lan txiki bat da.

Hortaz gain, **Eusko Jaurlaritz**a eta **Gipuzkoako Foru Aldundia**, bi erakundeen eskakizunez, gune hau **Europa 2000 Natura Sarean** jasota dagoela gogorarazten dugu. Beraz, **LIC (Komunitariar Garrantzizko Lekua)** bat kontsideratzen da, dagozkion gobernuak babestu eta kontserbatzera behartzen dituelarik.

Maila paisajistikoan lekuak ez du parekorik aurrez aipaturikoekin konparatuaz. **Jaizkibeleko** formazioa osatzen duten harkaitzen jalkitze-jatorriak eremuari berezitasun morfologiko bitxia ematen dio: hareharriak. Arroka hauen moldeakuntza, milioi urteetako lanaren ondorioa, emaitza bezala formakuntza edo eraketa batzutan dituen higadura prozesu konplexua da, babes eta begiespenaren merezimendua dutenak. Horregatik, **Pasai Donibanetik Hondarribiko Higer lurmuturreraino** doan ibilbidea osatzeak, ezohizko txango mendizaleaz gain, inork galdu ezin duen ikuskizuna da. Hareharri hauek inspirazio bezala balio izan zitzaizkion Victor Hugori kostaldearekin erlazonaturiko bere poema eta narraketa hobereketariko batzutan garatzeko.

Esparru geologiko hau izan da urteetan zehar naturaren beste apeta batzutan ezartzen joan izan diren lekua ere. Adibide bat mendiaren ipar aurpegiaren landaredia da, itsasertzeko bazterreko dagokiona. Eboluzio-prozesuan zehar itsaslabarretako landareak haize, gazitasun, malda malkartsu eta bere finkapenerako substratu eskasiaren baldintza gogorretara egokitu behar izan dira. Baldintzapen latz hauek izan dira prozesuan agindu dutenak. **Itsas mihilua** edo itsaslabarren goikaldeko **Armeria euscadiensis**, **gipuzkoar** kostaldeko zona konkretu bakar batzutan hazten den landare zoragarria, bezalako landareek apaintzen dute erliebe hau.

Gainera, bere kala eta paretak "ostatu" bezala erabiltzen dituzten **harkaitz-zozo**, **ubarroi**, **zanga**, **lanperna-musu** edo **martinak** bezalako itsas hegaztien migrazio-ibilbideetan puntu estrategikoa da **Jaizkibel**. Baina aldi berean itsaslabar hauetan Kantauri itsasaldeko kaio hankahoriduna edo kaio ilunaren kolonia haundienetariko bat ezarrita dago.

Itsas erreserba kontsideratzen da ere. Kala askoren helezintasunak Euskadi eta kontinenteko hobeekin kotserbaturiko itsas ekosistema bihurtzen du **Jaizkibeleko** itsasaldea. **Krustazeo**, **bibalbio**, **arrai**, **ekinoideo**, **asteroide**, **alga** eta **zefalopodoak** bezalako espezie asko bizi dira hemen. Beste asko aldiro bisitatzen dute, babes eta elikagai bila, **izurde mularra** edo **izurde arruntaren** kasuak.

Bere beste ekosistema bikainetako bat **amezti** edo **piriniar haritz** basoa, Jaizkibeleko baldintza mikroklimatikoei esker garatzen den baso **termofiloa** eta **esfagnoen** zohikaztegi garrantzak dira, azken hauen **Jaizkibeleko** populazioa Europako hegoaldereruntz kokaturikoa izanik.

Arrazoi gehiago daude ere itsasertzaren babesa defendatzeko. Hemen historiaurreko kokalekuak egon ziren eta zenbait lekuetan hauen aztarnak aurkitu dira, lur hontan gizakiak izandako eboluzioa aztertzen jarraitu ahal izateko kotserbatzea pena merezi dutenak.

Jaizkibel aparteko lekua izanik, ezagutua izan dadin merezi du. Bere osotasunean itsas-lur zerrendan zehar ibilia izan daiteken eremu erdi basatia eta hunkitu eta berotzen duen paisai batetaz gozatzeko itsaslabarrak. **Euskal Herriak** halako paradisu txiki hau edukitzeaz harro egon behar gara, baina arrazoiak guzti hauek arren, kanpo portu baten deabruzko proiektu batek parekorik gabeko espazio hau suntsitu nahi digu.

Nahiz eta zailtasun haundirik ez jarri, Vasco de Camping Elkarrekin ibilbide osoa kontrolatzen du, honek mementu puntuetan ibiltariaren aurrerapenari oztokoak jarri bait diezazkioke. Pixkanaka balizatuta izaten doa zaletuen laguntzarako, zalantza sortu dezaketen pasabide puntual eta delikatueta aurrera egiten laguntzeko.

Lurraren gorabeherak eta ordutegiarekin batera, jarraitu beharreko pausuak deskribatzen dituen topo-gida hau eskeintzen dugu zaletu guztientzat. Zeharkaldi integrala medizale kirol ariketa da, ibiltaria fisikoki prestatuta egotea eta ekipamendu egokia eramatea, batez ere oinetakoei dagokionez, behartzen duena. Baita ere zatika osatzeko aukera dago ordea, leku ezberdietatik sartu eta atereaz.

Txango honek, aipatu ditugun natura birginaren munduan eragingarri erregutuenetarikoak biltzen dituenaren haunditasuna dauka. Erreserba ahula da. Beraz

K/ Iparragirre Nº 8 Bajo Donostia / San Sebastián Tfno: (00 34) 943 271 866

www.vascodecamping.org / info@vascodecamping.org



"Itsasertzeko bidea: Jaizkibel mendiko Itsaslabarretako Ibilbidea"

Zeharkaldi osoa, Pasai Donibanetik Higerreko lurmuturreraino (Hondarribia)

Topo gida

begirune eta eratzunkizuna eskatzen dugu hemendik. Zaindu eta babes dezagun zalantzarik gabe Parke Naturala izendatu beharko litzakeen erreserba hau.

Jaizkibel mendiaren labarren itsasertzeko ibilbidetik, Pasai Donibanetik Hondarribiko Higer lurmuturra arte. Ibilbidearen 21,664 km-ak 9 bat orduan egin daitezke, paregabeko leku hontaz goatzeko beharrezkoak eta derrigorrezkoak diren geldiuneak kontutan hartuta. Geldiunerik gabeko denbora erreala 6,40 ordu dira, ezinezkoa dena den, lurraren izaera gorabeheratsua dela eta. Pilaturiko igoera ezberdintasuna 1.356 metrotakoa da. Aipatzen diren denborak Vasco de Camping Elkarteak 2005eko maiatzaren 1ean antolaturiko irteera kolektiboan lorturikoak dira.



Ibilbidea **Pasai Donibane-Bordalabordako** sarreran dagoen disuasio-aparkalekuan hasten da, herritarki tximiniarena bezala ezaguturikoa. Herrigunea oinezkoentzat eginga dago eta baimenduriko ibilgailuak sartu daitezke soilik. Donibane osoa zeharkatu behar da, bere kale nagusi estuaz eta badiako bistataz gozatuz, portuko aho bidean, **Alabortzako** senaiaraino, izen bereko bailara jaiotzen den lekuan. Hemendik zementuzko pista bat erabakiorki igotzen da **Talaiaren** "semaforoaraino", **Arando Haundia- Ekialdeko Bantxa** itsaslabararen erpinerraino.

0:00 Tximiniaren aparkalekua-**Bordalaborda**.

0:18 **Alabortzako** senaia. **Talaiako** semaforora erabakiorki igotzen den ezkerreko pista hartu.

0:29 **Talaia** semaforoa. Airetiko bidezidor estu bat zehar aurreratu, balkoi moduan, oilarraren gandor azpian, ipar isurialdeko itsaslabarren muturra. "Lehio" ezberdinek zaletua itsasoruntz burua ateratzen uzten dute, haiz bertikaletaz gozatu ahal izanaz. Gailur hormaren lehenengo alboak nabarmentzen dira, herritarki "gruyere gazta" izenarekin ezaguturiko irekidurak.

1:04 Bidexka erakargarria **Miltitxolako** larre belazeatan amaitzen da, beti espezie ezberdinetako abelburu ugari bazkatzen dauden lekua. Itsasertzari paralelo doan bidea ezkerretara hartu, larre zelai gune bukoliko batetan. Zintzilikaturiko lehenengo bailara agertzerakoan, errekararen bokaleruntz hasi behar da jaitziera, mendebalde ertzeko bidezidor nabarmen bat jarraituz. **Grankantoko** sakana da.

1:26 **Grankantoko** aparteko eraketa lirainak, herritarki "jaikoen bailara" bezala ezaguturikoak. Eguzkiak ematen dion heinean kolorez aldatzen doan formazioa da. Egun disdiratsuetan gorabehera apetatsu, haundi eta latza, milioika urteetako modelakuntza lanaren emaitza. Jadanik gertu dagoen itsasotik sortutako harrizko olatua izatearen sensazioa ematen du. Ibiltaria kostaldeko zati zailenean sartzen da. Zerra-hagin malkartsuak, garaiera galera garrantzitsuekin. Bisitaria harritzen duten gotorleku kolorista eta disdiratsuetan bukatzen diren muturren sektorean aurkitzen da. Hemen aurreratu ahal izateko labararen ertz belardunetik jaitzi beharra dago, oso maila baxuan harrizko zabaldegi baten hondoa adukiaz. Alde garaienera iritsi gabe, bidexka estu batek hurrengo bailara zintzilikatuaren ertzeraino, **Galearena**, zeharkatzen uzten du. Era zuzen eta azkarrean jaitzi beharrean, ertzetik edo eskuinera doan bidetik jaitzi behar da, labararen ertzean arku edo trikuharri famatua behatu arte.

2:04 **Trikuharri edo arku**, pertsona bat bere zentruan duelarik argazkia ateratzeko bertara iristea derrigorrezkoa dena. Gertaera natural hau ikusi ondoren "hodi" bidexkatik jarraitzen da, harritu eta hunkitzen duen pasabide estu eta delikatutik, balkoi moduan, behin haizpitarte berriko errekararen bokalean gaileneraino igoera gogorra hasteko, bailara berriaren ertzean.

2:26 **Kostatxiki**, hurrengo bailara zintzilikatuaren ertza. Bere ertzetik jarraitzen da, bertatik dijoan ur hornidura hodi batetaz lagunduaz. Zati hontan barrunbedun eraketa berriak aurkitzen dira, begiratuak izaten diren heinean formaz aldatzen doazten dorre zorrotzak.

2:44 Ibiltariak berriro altuera galduko du eta **Txakillarriko** arroketara bertaratu arte goratuko da, kanpo portuaren muin nagusiaren kokapenarentzat aukeraturiko **Azabaratzako** hondartza arrokatu zabalaren gaineko begiraleku galanta. Itsasbehera biziekin hondartza basati batetan bihurtzen den marearteko zabalguneko zabala da.

2:55 **Azabaratzako** arroka, itsas-lur ertz bertaraino jaisten deneko lekua. Tramankulu militar batekin ibiltzeagatik hildako gazte batzuen oroimenezko gurutze bat da erreferentzia hezea egonik arretarekin ibili beharreko harlauza leun bat gainditzeko, harri bertan agertzen diren oinatzak jarraituz.

3:00 **Azabaratzako** kala, alga bilketara buruturiko industria baten aztarnak gelditzen diren lekua.



"Itsasertzeko bidea: Jaizkibel mendiko Itsaslabarretako Ibilbidea"

Zeharkaldi osoa, Pasai Donibanetik Higerreko lurmuturreraino (Hondarribia)

Topo gida

Honaino ere pista batzu iristen dira, aipaturiko itsas landareen bilketarako zein beste berriago batzu ere, lur sondeoak egiteko. Ozeanoaren ertzetik aurreratzen da, aparteko eraketako marearteko zabalguneez arrokatsutik edo bere ertzeko bidexkatik, erabat zartaturikoa. Egoera txarreko arrantzaleen zenbait borda gaintzen dira, **Akerregi** sakanaren bokalean eraikitako beste arrantzale txabola batera iritsi arte, hau ondo kontserbaturikoa. Berehala agertzen den **Akerregiko** arrakala handia gaintzeko erreferentzia da.

3:20 Akerregiko arrakala. Paregabeko mozketak hunkigarria, haizpitarte zabal bat, ibiltariaren jarraipena etentzen duen kataklismo bat dirudien tormentaturiko lur eremu batetan kokatua. Gaintzeko bi era daude. Korridore belardun batetik hondoraino jaitsi, bere erlaitzetik itsasoraino jarraituaz, hemendik paretak altuera gutxien duen lekuan euskarri originale eta bikain batzuetaz lagundurik igotzeko edo bestela arrantzaleen bordaraino bueltatu eta ezponda hunkigarri honen bururaino, gorabehera hau gaintzen deneko puntua, igo eta hemendik itsasertzeraingo jaitsi berriz, harritzen duten beste hiru pitzadura, bereiziki bat, dauden beste marearteko zabalguneez arrokatsutik jarraitzeko.



Bretxaren igoera aukeratzen bada, behin hau gaintuta, ibiltariak itsasoarekiko perpendikular doan beste labar bat aurkitzen du, itsasertz arrokatsura iristeko beste korridore belartsu bat bilatuaz gaintzen duena.

3:45 Akerregi arrakalaren burua.

4:00 Tximistakurraluako itsasertza, itsasoarekiko paralelo doan zabalguneez arrokatsutik luzea. Albeolo eta koloreak nabarmentzen diren paregabeko formazio berriekin gozatu ondoren iristen da bertara, kirolariaren imaginazioa izanik hemen lan egiten duena. Orduan eraketek itxura ezberdinak dituztela imaginatzen du; apatatsuak dira, belaki bat, pudin bat, txabola bat, aldare bat edota zuhaitz enbor bat izan daitezke.

4:10 Ixkiroko muturra. Itsaslabar bertikalenak ikusten diren tokia, horma miresgarri eta harrigarriak, hauetako batzu etxe bat bezain handiak. Baita ere, erorketa librean, **Labetxuko** bailara zintzilakatu ezkutua, bere buruan **Putrekabi** bezala ezagutua, itsasertz guztiko altxor eta pitxia, bere barnean gordetzen duenagatik.

Mendizalea errepikaezinezko **Labetxuko** bailara zintzilakatura daraman labarraren gailurrean aurkitzen da. Egun disdiratsuetan era askotako arrosa, hori eta okre tonodun koloreak dituzten susmaezinezko eraketekin, natur balio handiko mosaikodun "kolore bikainetako bailara".

Bertara iristeko, muturraren ertzetik ibiltzea derrigorrezkoa gertatzen da, belarrezko korridore bat aurkitu arte, zein malkartsua izan arren ere, sakanaren hondoraino eramaten bait du. Hemen, leku ikusgarri eta liluragarri hontaz gozatuaz atsedean hartzea derrigorrezkoa dauka ibiltariak.

4:55 Labetxuko sakana, "Koloreen bailara". Beharrezko atsedendia ondoren, mendizaleak ekialdeko horma gaintzeko pasabide errazena bilatuko du. Formazio hunkigarri bat ikusiko du, denborak modelaturiko mosaikoa, galdu ezinezko urregintzazko mihisea. Hortik igotzen da eta historiaurreko animalia baten larruazala dirudien lur batetik zehar, **Turroia** puntatik pasatzen diren **Morkotzeko** itsaslabarren goikaldean kokatzen da kirolaria, itsasbazter osoko bertikalenak.

Herritarki espazio hau "labirintoa" bezala ezagutua da, aerolitoak diruditen bloke handi batzuren artean zeharka-meharka doan bidexka ugari bait dago, lurrak dardar egin eta kataklismo bat jasan izana dirudien erliebe kaotiko batetan. Agertzen diren pitzadurak direla eta zuhurtasunez ibili beharra dago. Harrigarriro, dena dago higituta, formazio harrigarriekin, kobazulo, aldare..., beti hegoalderuntz modelatuak. Formazio ugarietako pertsona axolagabearena ere harrituta uzten dute.

5:35 Beti itsasertzeko ertzetik jarraitu beharra dago "maskor" edo "gangaren" bila, **Turroia** puntako formazio bitxi eta bakarra. Inguruetan, landaretza oparoko **orinoko-amazoniar** toki batetan kobazulo bat dago ere, historiaurreko kokapenak egon ahal izan zireneko lekua. Sektore hau argazki kamararekin jaso beharreko kolore ezberdinetako formazio edo eraketa berrietaz josita dago. Itsasertza utzi behar da, mendi-mazela erdira joanaz, **Motelutik Erentzingo portu** gaineko **Erentzineko** labar bertikalera iristeko, kirolari asko blokeatzen direneko lekua. Erromatarrek **Gipuzkoan** egon zireneko garaietan portu izandako **Erentzineko** senaiaraino zuhurtasunez, baino arazorik gabe, jaisteko balkoi moduko bide bikain bat dago.



"Itsasertzeko bidea: Jaizkibel mendiko Itsaslabarretako Ibilbidea"

Zeharkaldi osoa, Pasai Donibanetik Higerreko lurmuturreraino (Hondarribia)

Topo gida



6:03 Erentzingo portura jaisteko goi ataka. Hontara iristeko mozketaren ertzetik igo beharra dago hau aurkitu arte, puntu bateraino airekoa den bide hontara sartzeko, aukeraturiko bidexkaren funtzioan paretaren biserak zenbaitzutan burua makurtu arazten duelarik. Gero, malda malkartsutik, baino mendi-mazela erdira joanaz, indefinituriko bidezidorrak **Erentzingo porturaino** eramaten du ibiltaria. Espazio hontaz gozatzeko beste atseden leku bat, hemendik orain helezina dirudien jaitsiera kontenplatuz.

6:13 Erentzingo portua. Itsasertzeko kala ederrenetarikoa, **Erentzingo** erreka itsasoratzen den lekua. Alga bilketa industria baten aztarnak geratzen dira. Itsasbazterrearengandik urruntzea beharrezkoa gertatzen da orain, pista-bide zabal batetik igoaz, baino behin bidexkan, hau utzi beharra dago eta txangozalea bailara txiki batetik zehar fosilen hondartza arrokatsura hurbilduko da, **Erentzin Zabala**, harri bihurturiko dordoka eta itsas txakurra bezalako itsas animaliak, edo bisitariak imagina dezakeen beste edozein apeta diruditen eraketa ederrak dauden lekua.

6:45 Erentzin Zabala. Zabalgunerak arrokatsutik aurreratuz jarraitzen da, ahoa itsasora irekitzen duen itsasertzeko kobazulo harrigarrienaren irekidura ikusi arte. **Mari Aiako Harritik** honeraino zetorrela dio kondairak. Barrunbearen ertzetik igotzen da, itsasbazterreko zati lasai eta atseginerara iristeko. Orografiaren egitura zeharo aldatzen da hemendik aurrera. Hezegune zelaiak itsasoraino iritsiko dira, badia txiki zein erakargarriak osatzen dituzten lurmutur hausart eta estuario ugarietan bukatuz.

7:15 Biosnar punta. Kostaldean muino zorrotza. Itsasertzeko ateragune ausart eta ikusgarriena, etengabeko aldaketan, bere egitura mugimendu jarraian baitago beti. Begiratoki ezberdinetatik argazkiak ateratzea pena merezi du. Hemendik aurrera itsasaldeko bidea argia da, baino ez garaiera gorabeherarik gabea, nahiz eta hauek garrantzizkoak ez izan. Dena den garaiera pilaketa garrantzitsua da eta fisikoki gutxi prestaturiko txangozaleari kalte egin liezaioke. Aintzinako **Artzuko errota** famatua zegoen **Artzuko porturainoko** itsasertzaren sektore guzti honen zeharkaldia zentzumenentzat gozamen bat da. Ibilaldia kapritxo bat da, beti erlaitzaz gozatuaz, mugagabeko ozeanoa protagonistatzat edukirik. Udan bainua erakargarri osagarritzat duten kala ezberdinak zeharkatzen dira. Horrela, zaletuak **Laondoko portua, Zanbullo, Urrillo** eta **Kapelu** gaingituko ditu eta zelai hezeak itsasoraino iristen diren **Marlan (Euskal Irlanda)** gozatu du.

7:45 Marla. Beti abelburu ezberdinak bazkatzen dauden itsasertzeko uhindura leunetaraino iristen diren belaze ederrak. Bidea **Artzuko portura (errota)** iristeraino zeharka-meharka doa. Bere inguruneetan, izkutaturik, izen bereko errota zaharren aurriak aurkitzen dira.

8:15 Artzuko portua (errota). Hemendik aurrera "aintzinako bidea" edo "bide zaharra" galduta gelditzen da, landaredi ugariak erasotuta. Hau ordezkatzeko duen pista batek, zenbaitzutan monotonia baino besteetan nolabaiteko natur balio eta interesarekin, ibiltaria Higerreko kanpin eta itsasargiraino eramango du.

Horrela ere, puristek zailtasunekin mantentzen den "bide zaharren" zati bat berreskuratu ahal izango dute. Elektraingarri aprobetxamendurako eraikuntza bat dagoen **Kapelaundiko** kalan, pista bidez iritsi beharrezkoa, hasiera batetan galduriko bidexka jarraitu daiteke, zeharkaldia hobetuaz. Pistaraino iristen da berriz, lehenengoz kolektorera helduaz, gero **Higerreko** lurmuturrera iristeko, bere kanpin eta itsasargiarekin.

9:10 Higerreko lurmuturra. Bertan txangozaleak kanpinaren instalazioak eta zenbait taberna ditu.

Pasai Donibanen **garraibide propioak utzi dituzten ibiltariak Hondarribiraino errepidetik jaitsi beharko dira** (45 minutu gehiago), Pasaira **itzultzeko dagozkien autousak hartzearen**.

Vasco de Camping Elkarteak itsasbazterrearen zeharkaldia etapa ezberdinetan egitea aholkatzen die zaletuei, paregabeko leku hontaz era lasaiago batetan gozatu ahal izateko. Elkarteak bere egoitzaren idazkaritzan zaletuen eskura dauden ibilbide ezberdinak antolatu ditu.



"Itsasertzeko bidea: Jaizkibel mendiko Itsaslabarretako Ibilbidea"

Zeharkaldi osoa, Pasai Donibanetik Higerreko lurmuturreraino (Hondarribia)

Topo gida



Aipaturiko denborak Vasco de Camping Elkartek maiatzaren 1eko igandean eginiko 76 partaideetako irteera kolektibo batetan lorturikoak dira. Arrazoi horregatik erlatiboak dira, talde txikiago batek egin ditzazkenekin konparatuaz. **Jateko geldiuneak eginaz eta, bereiziki, erliebe bikain hontaz gozatu eta argazkiak ateratzeko pentsatuak dauden denborak dira.**

Beraz, denbora hauek erlatiboak eta erreferentzia soilak direla ohartu behar da irakurlea.

Ibilbidearen zati asko hori, gorri eta fosforito koloredun marka txikiekin balizaturik daude, kirolariak zalantza izan ezkeru dudik gabe lagundu eta lasaitu dezaketenak. Epe laburrean ibilbide osoa balizatzea aurreikusita dago.

Vasco de Camping Elkartek topo-gida honen narratiba aberasten duen Pyrenaica aldizkariko 2002ko 207-2 zenbakian argitaraturiko Jesus M^o Alquezarren artikulua irakurtzea gomendatzen du.

Argitaratzailea: Vasco de Camping Elkartea-Donostian, 2005eko maiatza.

